

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Gure produktua merkatuan sartzeak salmenta ugari ekarriko dituela uste dugu, kontuan hartu behar da erosleak etxean gure produktuak konpontzen duen arazo hori dute, eta etorkizunerako komodidadea eta ongiizana bilatzen duten bezeroak dira. Bezeroei begira jarri gara eta buelta ugari eman ondoren adineko jendearen gana iristeko modua aurkitu behar dugula uste dugu. Nahiz eta produktu hau gehienbat adin handiko pertsonentzat pentsatuta dagoen, adin guztientzako pertsonentzako egokia izan daiteke. Produktu honek esfortzua kentzen lagunduko die erabiltzaileei. Beraz, gure produktuaren erosleak adineko pertsonak izango dira gehienbat. Bezeroek gurekin harremanetan jartzeko aukera izango dute eta bezeroak gure negozioaren bihotza direnez beraien beharren arabera diseinatu, eraldatu eta hobekuntzak egingo ditugu. Produktua hasiera batean guk salduko dugu ez baitugu hasiera bateko salmenta masiboa kontenplatu. Produktua egokia dela ikusiz gero produktu banaketa beste enpresa baten esku utziko genuke .

